


ATE OPARIAK

GAI TA IRUDI POLITENAK

Victor Pradera, 2
(Esquina Zubieta)

DONOSTI



GARBITASUN BAT

Aldizkari honen 1974-eko ekainaren 23-ko zenbakian, nire frase hau irakurtzen da: "Gure kultura guziaz kultura burges, deseskaldun, errepresibo, utilitario ta kontsumista hutsa da (HERRI GAZTEDEI)".

Kritikak argiturik, nire artikulok haren irakurleek aurrean, neure hutsegitea lotsez eta damuz aitortzen dut, eta neure okerra zuzentzeko asmoz, agirian jartzen dut:

Joera batzuen adibide gisan eta alusio bidez apatzen dudan pasarte hortan, bestek emandako informazioetan fidatuz, informazioaren zuzentasuna egiaztatu gabe ta originaletan esku artean edukirik ere ez nedukala, testuingururik moztuz eta GAZTE eta FALTSUKI eta jatorrizko ESANAHIA BESHETARATUZ alpatu nuela GAZTE aldizkaria, arinkeriak ustet faltsu bat zabalduz, informazio lege ororen kontra jokatu eta ahoetan hartu nuenaren kaltez, bai jendearen eta bai gauzaren.

Neu engainatu banintzan, besterik engaina ez dadin, eta huts honetatik inori merezi gabeko izen onaren galerarik ala beste edonolako kalterik sor ez dakion, garbitasun hau zor diet, irakurleari, Z. ARGIARI ta batez ere GAZTE aldizkari zuzendaritzari nahiz lankide ta irakurleei. Eta hala aitortzen dut, GAZTE aldizkariaren uztailako 21/28-ko zenbakian egin zaidan erantzun ta kritikaren zuzentasuna guziz onartzen dudalarik, hutsegite haren errua ta erantzukizuna oso-osorik neure gain eta neure gain bakarrik hartuz.

Joxe Azurmendi



KRISIALDIAREN GURPILEAN

Mendebaleko Europa zaharra, azken urteotan larritu gaitzak jasaiten ari da. Bere egitura ekonomikoa kordoka larrian zabukatu zen. 1973garrena, «Europaren urtea» deituratu zuten Nixon-Kissinger bikoteak. Baina aipatu urte hura, osoro biribiltzerik ez zuten ukan, tartean Ekialde Hurbileko istilua sortu zen eta Nixon-Kissingerrek, Europa «umezurtz» utzirik, bizi-bizi, Dayan begibakararen heriosugarra arazoibideratzea, egin zuten. Eta «Europaren urtea» pikutara joan zen.

Maiz askotan, politikoen esaldi eta aitorrak bi mizto izantzen du. «Europaren urtea», ez zen sortu, europarrei legezketen barne-egintzazkoak taxuzearren; atzitik, Estatu Batuek Europari zegokiolarik, burutu nahi zuten egitamuagatik. Beraz «Europaren urtea» funtean USArekin aldarria zen, eginkizun sakon bat eta helburu bikoitza. Bata: Europa, Amerikanen estratejia atlantikoari, diogun amerikatarren imperialismoari, lehenaz gain atxikitzea. Bestea: Yankitarren ekintza orokorrean, Europako komunitatea eragozpide gerta ez dadin, Inolazko modu guztiak egitea.

Krisialdi hauetan dakusagunez, Europak oraindik bide luzean ibili beharra daduka, hirugarren potentzi indartsu bat izan dadin. Integraz handiago, batasun gehiago eta europarrei lotuagoko politika bide zehatzago baten premian dago, gaurko Europa.

Nazio arteko diru krisisa, europatarrek, bakoitzak bere gisa konpundu dute, edo konpontzea nahi dute, Bretania Handiak, Merkatu Batuari lotu zitzaion bezain laster, bere diru-libera Mendebaleko sistema parekatzailearen baitara eman ordez; diru korronte orokorraren uhin gainean utzi zuten. Italiak eta Frantziak ere jokabide berdina darमतela esan dezakegu. Europaren interes bateratzailer baino nor beheren opilak sugartzen gehiago saiatzen dira.

Gaurko Europa, Yalta eta Potsdango ondorio da, hein handi batez bederik. USArek helburu imperialistak erro erroan sartu ziren bigarren Mundugerrateko Europaren erakitasunean. 1945garrengo Europa akitu, norabiderik gabe USArek atzaparretan gelditu zen. Baina Europa kapitalista indarge bat Yankitarrei ez zitzaion komeni. Gerla osteko Munduaren politika banaketan, USA-k Mendebalde sobietdarren eragipenetik libratu nahi izan zuen. Alemania menperatua zen honetan giltzarri. Amerikatarrek, dirutza gaitza xahutu zuten Alemania Federalaren bireraketa. Ez alferrik eta hutsaren truketan ordea! Amerikatarrek

oso urrutira begiratutik ari ziren, gerorako oinarriak sendo tinkatzen eta imperialismoaren zerbitzura Europa murrarazten. Gerotzik, Mendebaleko guziaz arunt amerikatar-tuia izanaz dirau.

Frantziak, agian bere xaubini-noagatik?, Estatu Batuen azpikeriak salatzeke sena berezia izan du. De Gaulle bera 1962an Cubako misilen krisisa zelarik eta Pompidou izako Urriari biziki zorrotz mintzatu ziren Europa marjinautaren faboretan. Giscard d'Estaing badirudi, oraingo aldiaren bederik, haserreak utzi eta amerikatarrei hurbil zatzalola. Eta ene ustetan hau atzerakadaz litzateke, zeren Frantzia bere huts guztiak ere Europa «Batuago» baten kontzientziagile izan baita.

Ekialde Hurbileko matxinadan, Arabe eta Juduen arteko gudaketa- rren gainerik, Yanki eta sobietdarren itzala dago. Bakoitzak bere barrutia ongi zimautzen du. Eta Europaren eraginik ia ez da nabaritu ere egiten. Petrolioaren krisialdi eta garestiketarik, Merkatu Batu lozorroan, eskugurutzaturik arkitu du, noraezan zer egin asma ezinik. Petrolioaren garestitze hutsak, Japoni, aurtengo urtean, lazkoan baino hamar mila milioi gehiagoren kutzatzea dakarkio. Frantzia, Italia eta Alemaniarri bost mila milioi. Eta Bretania Handiarri zazpi mila milioiren zama astuna erantsitua dio. Eta zer gertatuko da surrumurruek dioten bezala laster berriro garestitzen bada...?

Harrigarriko datok ezagutu ditugu oraintsu. Mendebaleko Europa guztiak petrolio gordinaren garestitzeak gorniturik utzi duen aldi berean; EXXOM (lehenago ESSO zerbitzaria) petroliosaltzaileak, urte honen lehen hilabetetan lehengo irabaziak ehuneko berrogeitan gehitu du. MOBIL OIL-ek % 65, GULF OIL-ek % 179, TEXAKO-k % 120 etab.

Kissinger-ek konponketak egiteko ahalmen harrigarria duela frogatu du, azken garaioan. Ekialde Hurbilean usuenik ibili delarik, Europa ez du aintzakotz hartu ere egin. Eta Ekialde Hurbiletik, Europa erabat marjinauturik dago gaur egun, petroliosaltzaileen maniobrei so ezinbestean.

Ipar Amerikari ez zaio komeni Europa Batu tinko bat. Hau sekula ez dute gogozko izanen. Amerikanoek, Europa «Aliantza Atlantica» deritzionaren morrontzan erabili nahi dute.

Krisialdi honek erakutsiko ahal digu Europatarrei nondik jo behar dugun?

ANATSAN

PIRELLA

6 zozketa
Suiza'tik
ekarritako
bigantxa

seiak, alpes'tar - arre
jator-jatorrak eta
banan-banakoak

CAN

Donosti-Aurrerki-Ribera
diru jartze epea: dagonilla'ren 14 arte

**ZERUKO ARGIA
SALTZEN DA:**

ELGOIBAR
M. Gorostiza

EIBAR
Angera
Markina
Iriondo
Eguren
Gisasola
Barela
Alday
Aranburu
Estanko, 11
Isasi
Simon
Amana
Uraui
Urizar
Siglo XX

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE-TXUKUNKETARAKOAK
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA
Urrutizkifnak:
Etxekoa: 65 19 60
Landolakoak: 65 19 33

URRETIXUA
Urrutizkifna:
Landolakoak: 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7'gn

MITXELENA

ORDULARI ETA BITXITEGIA
Del honi jarraituz bazatuz
zure erlojua KANARIAS br'tan
balio merkeago erosko duzu

Matxin Arzu, 1 ONDARRABI